

Trans* pertsonen jarduera fisiko eta kirolean aurkitzen dituzten oztopoak

Amaia Otegi Alvarez¹, Uxue Fernandez-Lasa^{1,2}, Nagore Martinez-Merino^{1,2},
Lo Eizagirre Erguin³

¹Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

²GIKAFIT (Gizarte, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldea)

³Lehen Hezkuntzako irakaslea

Ikerlanaren helburua da jarduera fisiko eta kirolean (JFK) trans* pertsonen errealitatea aztertzea. Bereziki, zer zailtasun topatzen dituzten eta horiei aurre nola egiten dieten aztertu da. Marko teorikoan Butlerren genero-performatibitatea eta eredu sozioekologikoa erabili ziren. Bost trans* elkarrizketatu ziren, sakoneki elkarrizketa bidez, 18-32 urte artekoak. Emaitzetan trans* pertsonen dituzten hainbat oztopo azaleratu ziren JFKaren arloan: a) norbere baitako alderdiak, besteak beste, gorputz-itxurak zein hormonazioak sortuak, b) haien familiakideek, ingurukoek eta beste kirol-eragile batzuek eragindakoak, eta c) testuinguruko espazio ez-seguruetan jasaten dituzten gertaeren ondoriozkoak, aldagelak nabarmenduz. Ondorioetan azpimarratu da ezinbestekoa dela trans* pertsonen oztopo intrapertsonalen kudeaketan laguntzeko bitartekoak erraztea, ingurukoen begiradak hezi eta aldatzea eta JFKaren espazioak seguruak bihurtzea pertsona ororentzat. Lan honek kirol-politiketan trans* pertsonen egoera hobetzeko neurriak susta ditzake.

GAKO-HITZAK: Jarduera fisikoa eta kirola · Diskriminazioa · Transfobia.

Barriers of trans* people in physical activity and sport

The aim of this research was to analyse trans* people's situation in physical activity and sport (PAS). The main objective was to analyse the obstacles they face and how they deal with them. Butler's gender performativity and socio-ecological model were used as the theoretical framework. Five trans* people aged 18 to 32 were interviewed using the in-depth interviews. Trans* people face a number of obstacles in PAS: a) intrapersonal aspects related to the body appearance and hormonation, b) difficulties caused by family members and friends and other sports agents, related to the need to support them, and d) contextual barriers related to the fear in different spaces, especially in the changing rooms. In conclusion, it is necessary to promote strategies for trans* people to challenge their intrapersonal difficulties, to educate and change the way others look at them, and to make PAS spaces safe for everyone. This study can help to improve the reality of trans* people in sports policies.

KEY WORDS: Physical activity and sport · Discrimination · Transphobia.

1. Sarrera

Testu honetan, azken urteetan ikertzen ari den errealitate bat jorratu da, trans pertsona. Fausto-Sterlingen arabera (1993), sexua konplexua da eta bi kategorია izan beharrean, bi horien artean continuum bat legoke, hainbat konbinazio posiblerekin. Horiek izendatzeko, trans* normatibitatea ardatz hartu gabe, modu ezberdinak egon litezke. Hori dela eta, izartxo (*), erabiltzea hobetsi da ikerlan honetan trans* kategoriaren ondoren. Idazketako ñabardura honek, pentsamolde-aldaketa baten edo ikuspegi-aniztasunaren isla izateaz gain, egungo beharrak agerian uzten ditu. Cabralekin bat etorriz (2009), izartxo erabili da trans* pertsonen erreferentzia egiteko, hitzak aterki-itxura baitu, horren barruan errealitate guztiak eta trans* izateko era guztiak barne hartzeko, pluraltasuna eta aniztasuna adierazteko asmoz. Hain justu, lan hau continuum horren baitan kokatutako trans* pertsonen eta haien jardura fisiko eta kirol-bizipenetan oinarritu da.

Jarduera fisikoa eta kirola (JFK), gizartea bera bezalaxe, maskulinitate hegemonikoaren esparru eta babesleku izan da historian zehar; kirolari esleitutako balioak androzentrikoak izan baitira (Hargreaves, 2000). JFKaren esparruan, maskulinitate hegemonikoa balioesten da, besteak beste, gizezkoen indarra eta emakumezkoen ahultasuna azpimarratuz (Hargreaves eta Anderson, 2014). Nolanahi ere, femeninoaren eta maskulinoaren arteko bereizketa ezin da gizonen eta emakumeen arteko aurkakotasun hain sinple eta erradikal batera mugatu (Joncheray, Level eta Richard, 2016). Kirola, gainera, genero-hierarkiak erreproduzitu eta, neurri berean, aurre egin dakiekeen eremu bat da, arau sozialak zalantzan jartzen direlako eta eboluzionatzea eragiten duelako, genero-harremanei aurre egin eta horiek eraldatzeko bide bihurtuz (Hargreaves eta Anderson, 2014; Joncheray *et al.*, 2016).

JFKak onura psikologikoak eragin litzake, rol garrantzitsua du, besteak beste, emozio eta sentimenduen kudeaketan, antsietatearen eta estresaren murrizketa eragiten du eta gaitasun kognitibo eta sozialak, autokonfiantza eta erresilientzia hobetzen ditu (De Moor *et al.*, 2006; Granados eta Cuellar, 2018).

Trans* populazioa ikertzean ondorioztatu izan da, ordea, onura psikologikoen gabeziak agertzeko arrisku handiagoa dagoela, gaztaroan suizidioa, depresioa eta etsipena ohikoagoak baitira (Mizock eta Mueser, 2014). Hori gizartean erreprimetuta egon den eta oraindik ere guztiz onartuta ez dagoen kolektibo bateko kide izateak eragiten duen estresarekin, babes faltarekin eta norberaren buruaren onarpenik ezarekin lotzen da. Izan ere, trans* pertsonen inguruan dagoen ikusgarritasun eta informaziorik ezak haienganako estigmatizazioa dakar (Mizock eta Mueser, 2014). Jazarpena eta diskriminazioa jasateko beldurrak hainbat egoera eta espazio publiko zein sozial ekiditea dakar, tartean JFKarekin loturikoak. Espazio horietan, trans* pertsonen beren burua identifikatzen duten generoarekin bat ez etortzea eta trans* bezala irakurriak izatea, edo aditzera ematea, dira ziurgabetasun gehien eragiten duten faktoreak. Baita horrek ekar dezakeen diskriminazioa edota gainerako balioztatze falta ere (Ellis *et al.*, 2014).

Populazio honetan, gorputzarekiko asetze-mailak eragin handia du, zenbaitetan *passingaren* arabera izanik. Termino horrek erreferentzia egiten dio, kultura

eta gizartean genero bakoitzari esleitutako ezaugarriak kontuan hartuz, aldaketa batzuen bidez (bai fisikoak zein portaerazkoak) norbanakoa bat datorren genero-adierazpenarekin irakurria izateari, bai emakumezko zein gizonezko bezala, baina gizarteak trans* pertsona bezala ez identifikatzeari (Witcom *et al.*, 2015). Kasu askotan, trans* pertsonak ez dute lortzen nahi duten genero-adierazpenarekin identifika ditzaten edo zenbaitek ez dute lortu nahi, ez direlako sistema bitarrear kokatzen. Orduan indarrez agertzen dira hain hertsia den binarismoan oinarritutako gizarte batean bizitzearen albo-kalteak (Semerjian eta Cohen, 2006). Jaiotzean inposatutako generoa eta genero-identitatea bat ez etortzea oztopo pertsonal bat da trans* pertsonen parte-hartzea sustatzeko, eta inaktibitatea eragiten du (Jones *et al.*, 2017). Genero-arauetatik at egoteak, gizonezko edo emakumezko lez ez identifikatzeak gizartean diskriminatzea eta zigortzea dakar, indarkeria emozional edo fisikoaren bitartez. Horregatik, gizartearen ebaluazioa eta gainerakoen begirada trans* pertsonengan antsietatea sor dezakeen oztopo garrantzitsu bat da (Jones *et al.*, 2017).

Beste alde batetik, kirol-arropak ere garrantzia izan lezake oztopo bezala, gehienbat antolatutako JFKaren praktiketan trans* parte-hartzaileen ezaugarri fisikoak begi-bistan geratzen direlako. Adibidez, emakumezko trans* batzuen kasuan, nahiz eta emakumezkoentzat egindako arropak erabili nahi izan, ez ziren eroso sentitzen, beste generoari, gizonezkoei, esleitutako genitalak nabari zitzaizkielako (Jones *et al.*, 2017).

Horrez gain, López-Cañada eta kideen (2021) hitzetan hain indartsua den kirolaren antolaketa eta egitura bitarrak trans* pertsonen kalte egiten die eta, kasu gehienetan, gozamenari eta JFKak dakartzan onurak lortzeari uko egitea eragiten du. Kirolak bi sexu hegemonikoen sistema normalizatzen du (Travers, 2006) eta oinarrian hain errotuta dagoen sexu-segregazioak gizartean gertatzen den diskriminazio primarioa bultzatzen du, bi kategoriatan bereiziz, femeninoa eta maskulinoa. Bigarren mailako diskriminazioa ere eragiten du, horrez gain, bi kategoriatan horiei esleitutako ezaugarriekin bat ez datozen pertsonak kiroletik kanpo utziz edota sexu-ebaluazio batera behartuz (D'Angelo eta Tamburrini, 2013). Tartean, 2018ra arte indarrean izandako sexu-egiaztapen azterketak leudeke, zeinetan ebaluazio baten bidez gorputz-itxura edota genero-adierazpenarengatik susmagarriak ziren kirolari emakumezkoei kontrolak egiteko eskubidea zuten federazio eta batzordeek (Heggie, 2010; Hercher, 2010). Horren eraginez, are gehiago baztertzeko ziren trans* kirolariak, lehiaketa-esparrutik kanporatuz. Horregatik, haien parte-hartzea sustatzeko eta bazterketarik ez gertatzeko kirol-lehiaketako politikak eraldatu beharko lirake (Jones *et al.*, 2016).

Amaitzeko, JFKaren eremuan pertsona hauen duintasuna eta askatasuna ez dira errespetatzen, bereziki, aldagela, komun eta dutxetan (López-Cañada *et al.*, 2021). Espazio ez-segurua dira, askotan antsietate- eta beldur-eragile (Jones *et al.*, 2017; Pérez-Samaniego *et al.*, 2019). Horrez gain, JFKaren eremuak irekiak eta publikoak izanik ere, espazio ez-segurua bihurtu litezke aisialdiko jardueren fisikoko espazioak, kalea, mendia edo igerilekua. Espazio publiko batean egote hutsak trans* pertsonak jazartzeko aukera areagotu lezake (Hargie *et al.*, 2015). Genero bati esleitutako

itxura ez izateagatik, desberdinak izateagatik, jendartean portaera ezatseginak bizi dituzte trans* pertsonak, generoarekiko jokabide ez-normatiboa duten pertsona askok bezala (Hargie *et al.*, 2015). Hori JFKan parte hartzea murrizten duen beste oztopoetako bat da. Esaterako, Hargie eta kideek (2015) ondorioztatu zuten trans* pertsona batzuek beren ibilbidea edo paseoa bidean topa zitzaizketen pertsonen arabera planifikatzen zutela.

1.1. Marko teorikoa: Judith Butlerren genero-performatibitatea

Ikerlan honetako ikuspegi teorikoa teoria feminista postestrukturalistetatik eratorritako printzipioetan oinarritu zen. Zehazki, Butlerren performatibitatearen teoria (1990 eta 1993) erabili zen genero-identitatea anizkoitza, arina eta aldakorra dela ulertzeko. Izan ere, generoa eraikuntza sozial bat da, eta gorputzaren bidez eraikitzen eta erreproduzitzen da testuinguru kultural batean. Butlerrek (1993), queer teoriaren bultzatzaile nagusietako bat, sexua ere eraikuntza sozial gisa ulertzen du eta generoari dagokionez, ezegonkorra izanik performatibitatearen ondorioz eraikitzen dela azpimarratu izan du, bi kategorietara eta gizartean hain errotuta dagoen bitartasunera mugatu gabe. Sexu, genero eta sexualitatearen kategoria bitarrak aztertuta, queer teoriak kategoria horien «naturaltasuna» zalantzan jartzen du. Ildo horretan, bereziki, Butlerrek (1993) azpimarratu izan du performatibitatea sexua, generoa eta sexualitatea ezegonkorrek direla edo berez ez direla «naturalak», baizik eta esleituriko sexu, genero edo sexualitatearen gorpuzte errepikakor baten ondorio.

Diskurtso nagusiak naturalizat jotzen diren arren, Butlerrek (1993) errealitate horri aurre egiteko eta aldatzeko aukera agertzen du, bestelako ekintza performatiboek esker, non generoa gorpuzteko modu ugari aurki litezkeen. Jarduera horiek, era berean, arau nagusiek ezartzen dituzten murrizketen eraginpean ere badaude, baina ekintza alternatibo horiek ekintza indibidualen bidez irudikatzen eta eraldatzeko aukera dago. Genero-performatibitatea ez da irudikapenera edo arropa espezifiko erabiltzera bakarrik mugatzen, baizik eta behin eta berriz gorpuztuz finkatu eta errepikatzen da eta gorputz fisikoa markatzen du (Butler, 1990). Generoa egiten da feminitatea eta maskulinitatea eginez. Hala ere, Butlerren arabera (1990, 1993), une batean sexu binario baten egonkortasuna kontuan hartuta ere, horrek ez du esan nahi gizonen eraikitzeak gizonezkoen gorputzari bakarrik atxikiko zaizkionik, edo emakumeek emakumeen gorputza bakarrik interpretatuko dutenik.

Gorputz-itxurak berebiziko eragina du, genero-adierazpen eta -performatibitatearekin batera, kirol-arloan faktore garrantzitsuak dira oztupoak eta parte-hartzea aztertzeko (Butler, 1990). Kirol-soziologian, Butlerren teoriak batez ere emakumezko kirolarien, gizonezkoen eta maskulinitateen, lesbianen, eta transgeneroen eta intersexualen esperientziak hobeto ulertzeko erabili izan dira (Tredway, 2018).

Amaitzeko, trans* normatibitatea da uste izatea modu bakarra dagoela trans* pertsonak beren generoa praktikatzeko (Nicolazzo, 2016). Zehazki, trans* normatibitateak iradokitzen du trans* guztiek igaro behar dutela gizartean onesten den sexu batetik bestera (adibidez, gizonetik emakumera). Kontzeptu hori uste faltsu honetan

oinarrizten da: identifika daitezkeen bi sexu baino ez daude (hau da, maskulinoa/femeninoa), eta sexu horiek, aldi berean, bi generori bakarrik lotuta daude (adibidez, gizona/emakumea), eta genero horiek diskretuak, naturalak eta aldaezinak dira (Butler, 1990). Beraz, heterosexualitatearen matrizearen Butlerren kontzeptuaren arabera (1990), trans* pertsona bat sexu batetik beste batera igarotzea sexu bateko sexu jakin batera konektatuta dago, eta sexu horretako transmisio jakin batera.

1.2. Marko teorikoa: ikuspegi sozioekologikoa

Eredu sozioekologikoa pertsonen JFKan duten parte-hartzea aztertzeko erabilgarria dela frogatu zuten hainbat ikertzailek (Sallis *et al.*, 2008). Ereduak bizi-estilo osasuntsua izatea baldintzatzen duten faktoreak aztertzen ditu, testuingurua dimentsio desberdinetan sailkatuz. Sallis eta Owenek (2015) domeinu hauek proposatu zituzten: intrapertsonala edo norbere baitakoa (biologikoa, psikologiko, kognitiboa, emozionala), soziala edo interpersonala (familia eta gainerakoak) eta testuinguruko faktoreak (kultura, politikak, erakundeak...). Horiek, maila desberdinetan erlazionatzen diren arren, etengabe daude elkarrekintzan (Sallis *et al.*, 2008). Ikuspegi honek duen mailakatze horri esker gizarte-masa eta banako baten elkarrekintza aztertzea ahalbidetzen da, JFKaren portaera aurreikusteko helburuarekin (Giles-Corti *et al.*, 2005). Ekosistema horren barruan, mikro- (lagunak, familia, eskola...), meso- (mikro- eta exo- sistemaren arteko elkarrekintza), exo- (gizarte-zerbitzuak, komunikazio-medioak, komunitatea...) eta makro-sistemak (balioak, politikak...) daude (López-Cañada *et al.*, 2021).

Ebidentzia zientifikoari erreparatuz, azken urteotan oihartzun eta arreta apur bat jarri bazaie ere, gaur-gaurkoz trans* pertsonen JFKa egitea oztokatzen duten arrazoiak aztertzen dituzten ikerketen beharra dago (Devís-Devís *et al.*, 2015). Hortik abiatuta, lan hau ardazten duen ikerketa-galdera honako hau izan zen: zer oztopo aurkitzen dituzte trans* pertsonen JFKaren esparruan?

2. Metodologia

Trans* pertsonen JFKaren testuinguruko bizipenak arakatzea izan zen lan honen ardatza. Horretarako, bazterretik erdigunera ekartzeko prozesu honetan, zenbait erabaki metodologiko hartu zituen ikerketa-taldeak. Lehena ikerketa kualitatiboan oinarritzea izan zen (Flick, 2007). Era horretara, trans* pertsonen eguneroko portaera zein bizipenak ulertzea lortu nahi zen (Sparkes eta Smith, 2014). Horrez gain, bazterreko ahotsak erdigunean sinbolikoki jartzeaz haratago joateko, ikerketarako elkarriketatutako pertsona bat artikulatu honen ekoizpen eta berrikuste-lanean aritu da. Horrela, beste eredu batzuei jarraikiz (Fine *et al.*, 2003), ikerketa parte-hartzailearen diseinuari jarraitu zaio, gure lanari fidagarritasun handiagoa emateaz gain, benetan, ikergai den populazioak ikerketa-prozesu osoan parte hartuz.

2.1. Parte-hartzaileak

Ikerketa honetan bost pertsona elkarriketatu ziren. Emaizten irakurketa errazte aldera, parte-hartzaile bakoitzari ezizen bat esleitu zitzaion. Parte-hartzaileengana

heltzeko, nahitako laginketa teknika (Casal eta Mateu, 2003) erabili zen. Horrez gain, inklusio-irizpide batzuk zehaztu ziren, zehazki: 1) trans* pertsona izatea eta 2) JFKaren munduarekin harremana izatea. Horrela, irizpideak betetzen zituzten bost pertsona aurkitu eta haiekin harremanetan jarri ondoren elkarrizketetarako hitzorduak zehaztu ziren.

Parte-hartzaileei dagokionez, 18 eta 32 urte bitartekoak izan ziren, EAEkoak, horietako hiru gizonezko bezala identifikatu ziren, beste bat emakume bezala eta bosgarrena pertsona ez-bitar gisa. Genero-aldaketari lotutako prozesu ezberdinetan zeuden bostak. Bostetik hiru hormonatu egin ziren edo hormonatzen ari ziren, NAn izena aldatua zuten hiru horiek, laugarren batek NA aldatu gabe hormonatzeko asmoa adierazi zuen eta bosgarren batek, ez-bitar gisa identifikatzen denak, momentuz ez hormonatzea erabaki zuen. Jarduera ezberdinak praktikatzen zituzten parte-hartzaileek: bostetik lauk beren kasa egiten zuten JFKa, haietako batek kirol antolatua egiten zuen bere kasa jarduteaz gain, gertuko kiroldegian lautik bik beren kabuz eta batek prestatzaile fisikoarekin. Bosgarrenak, NAn izena aldatua ez dutenetako batek zehazki, emakumezkoen* ligan jokatzeko futboleant.

2.2. Datuak jasotzeko teknikak

Datuak jasotzeko teknikari dagokionez, elkarrizketa erdi-egituratuak erabili ziren (Flick, 2007). Gidoi bati jarraikiz, parte-hartzaileak JFKaren inguruan izandako bizipenen inguruan galdekatu ziren. Elkarrizketa malguak izan ziren, eta askatasuna eman zitzaie galderaren bati erantzun nahi ez bazioten ez erantzuteko. Bost elkarrizketatik lau aurrez aurre burutu ziren, toki lasai eta eroso batean parte-hartzailearekin adostutako hitzorduan. Behin ikerketaren helburuak azaldu ondoren, parte-hartzaileek baimen informatua sinatu eta ahots-grabagailua martxan jarri zen. Bosgarren elkarrizketa, Skype aplikazio bidez egin zen eta hau ere grabatua izan zen. Bostetik hiru elkarrizketa euskaraz egin ziren eta beste biak gaztelaniaz. Ondoren, elkarrizketa guztiak transkribatu ziren. Ikerlan honetarako, gaztelaniaz egindako elkarrizketetatik txertatu diren aipuak ikertaldea itzuli ditu, elkarrizketatuek esandakoen itzulpen literala eginez.

2.3. Datuen analisia

Datuen analisiari dagokionez, Ruiz-Olabuenagak (2012) proposatutako edukien analisiaren teknika erabili zen eta kategoria-sistema bat eraiki zen. Horretarako, transkripzioak behin eta berriz irakurri eta behetik gorako ikuspegia erabili zen, induktiboa. Lehenengo aldian, deskubritzearen aldian, suspertu ziren kontzeptu eta proposamenak azpimarratu ziren. Ondoren, bigarren fasean, datuen kodifikazioari heldu zitzaion kategorizazioaren bidez. Kodifikazioa osatzeko bi gai nagusi hautatu ziren: oztopoak eta ikuspegi soziologikoen domeinuak —faktore intrapertsonalak, interpertsonalak eta testuingurukoak—. Datuak sailkatu ahala, gaietan azpigiak sortuz eta kodifikatuz sailkapen bat sortu zen susperturiko kategorien bidez. Azken eta hirugarren fasean, ideien arteko loturak gauzatu eta kontzeptu berrien sorrerari ekin zitzaion, ikerlaneko aurkikuntzei azalpen eta esanahia emanez

literatura zientifikoarekin alderatuz. Ikerlanean susperturiko kategorietan dimentsio intrapertsonalean gorputza eta harekiko harremanak eta hormonazio-prozesua zeuden, alderdi intrapertsonalean familiakide eta lagunek zein beste kirol-eragile batzuek izandako jokabideak, eta, azkenik, amaitzeko, testuinguruko alderdien artean suspertu zirenak aldagela eta dutxetako esperientziak eta beste espazioetakoak izan ziren.

3. Emaitzak eta eztabaida

Ikuspegi androzentrikoa eta heteroaraua daude JFKaren sistemaren muinean (Hargreaves, 2000) eta horrek erabateko eragina du trans* pertsonengan. Izan ere, oroz gaindik JFKaren arloan bizi duten diskriminazioa suspertu zen emaitzetan (Lopez-Cañada *et al.*, 2021). Zailtasun eta oztopo horiek ikuspegi sozioekologikoaren arabera aztertu ziren. Jarraian aurkezten dira elkarrizketatutako bost pertsona trans*en zailtasun eta oztopoak JFKaren testuinguruan, hiru kategoriatan: dimentsio intrapertsonala, dimentsio interpertsonala eta testuinguruko dimentsioa.

3.1. Gorputza eta norbere baitako gatatzak: aldagai intrapertsonalak

3.1.1. Gorputzarekiko asebetetze-maila

Gorputz-itxura eta harekiko harremana nabarmendu zen, partaide guztien esanetan. Izan ere, trans* pertsonak beren gorputzekin harreman gatatzakatuak izan ohi dituzte (Jones *et al.*, 2017). Ildo horretan, elkarrizketatuen deserosotasunak nabarmendu ziren, beren gorputzarekin egonezina eragiten zieten egoeren adibide ugari agertuz.

Gorputz-itxuraren aldaketen arabera aldi ezberdinak eta urrats horien araberrako erreakzioak zituztela azpimarratu zuen Joxek, batez ere adieraziz jendeak berarekiko hainbat patroi errepikatzen zituela eta horrek beragan eragina izan zuela:

Hasieran, batez ere igual ba ilea moztu nuenean, edo... Ba pixka bat beste arropa bat janzten dudanean... edo igual orain lasaiago nagoela edo... Ez dakit e, jarrera aldatzen da, eta jarrera aldatzen da nirea eta ingurukoa, eta ingurukoa niregan ere bai. [...] Klaro beldurrak aldatzen joan dira, eta hori dena joan naiz deskubritzen eta daude patroi batzuk jarraitu egiten direnak (Joxe).

Zentzu horretan, elkarrizketetan haien gorputzetan haiei hain gustagarri ez zitzaizkien atalen bat beste pertsonak nabaritzea nabarmendu zen, edo baita haiek horren inguruan izan zitzaizkien burutazioak ere, besteen begiradaren pean egotearen ondorioz, Ekaitzek eta Beñatek adierazi moduan:

Ez zitzaizkien asko igartzen, baina igual gimnasioan zeuden dena ispiluak eta bueno nirekin ez nintzen oso ondo sentitzen eta igual baita korrika egitera kalera irteten nintzenean ere. Pentsatzen nuen, bua, nire bularrak, edo horrelako pentsamenduak etortzen zitzaizkidan (Ekaitz).

Batzuetan, begirada batzuk badaude edo une batzuetan nahi gabe pentsatzen ari zaitzek zer bait nabaritu ahal zaizula eta norbait konturatuko dela (Beñat).

Gorputzarekin zuten harremanarengarapenaren inguruan, ordea, ezberdintasunak agertu ziren parte-hartzaileen artean. Izan ere, elkarrizketatuetako batzuk sailkapen bitarrean kokatu eta sexu-aldaketa egiteko asmotan edo eginda zeuden bitartean, beste zenbaitek ez zuten horretarako beharrik sentitu, trans* normatibitateari ez jarraituz (Nicolazzo, 2016). Genero-performatibitate ezegonkorrak itzal luzea du (Butler, 1990). Hori dela eta, besteek gizon edo emakume moduan ikusi eta sexu horri esleitzen ez zaizkion ezaugarri fisikoak izateak atseginak ez ziren egoerak sorrarazten zizkien parte-hartzaileei, haien gorputz-adierazpena ez zettorrelako bat kanpoko begiradarekin. Adibidez, elkarrizketatuetako batek, gizon transa* bera, adierazi zuen bere gorputz-atal ezberdinekin harreman ezberdina zuela, beste pertsonak egin zezaketen irakurketak baldintzatzen zuena:

Nire partez beti gaizki ikusi dudan partea titiak izan dira, ez hainbeste bulba izatearena... izan ere bulba da ikusezina den gauza bat. Nik arropa eramanda ezkatuta eraman dezaket, baina titak ez baditut sujetadorean eramaten ba zuzenean agertzen zaizkit titi puntak eta nik gaizki daramadan gauza da. Oraindik gaizki daramadan gauza bat da (Ander).

Gorputz-atalak estali edo ez nabaritzeko estrategia ezberdinak daude. Adibidez, ile luzea edo orrazteko era, makillatzea, bularrak estaltzeko kamiseta azpiko faja/binderra, zeina deseroso eta mingarria den, edota trans* gizonen artean erabili den estrategia, genitalak simulatzeko osagarri edota arropa bereziak (López-Cañada *et al.*, 2021; Semerjian eta Cohen, 2006;). Beñaten testigantzak gorputzarekiko asebetetzea hobetzeko erabili ohi zituen estrategia ezberdinak eta haien ondorioak azaleratu zituen. Gordin azaldu zuen bere beldur eta ziurgabetasunari aurre egiteko nola saiatu zen ezaugarri fisiko batzuk eraldatzen, bere osasuna kaltetu behar bazuen ere:

Beldurra, ziurgabetasuna, nik disimulatzeko plastikozko zakil bat erosi nuen, pentsa! Une hartan oraindik ez nintzen nire gorputzarekin gustura sentitzen eta izugarri estutzen zidan faja bat erabiltzen nuen bularrak estaltzeko. Ahalegin horretan, fajak nola zapatzen ninduen eta horren gainetik doan likrazko zatiaren eraginez arnastea ere kosta egiten zitzaidan. Faja erabiltzen nuenean haragi-eten bat ere egin nuen [...] Zerbait nabaritu zizutela pentsatze hutsarekin... (Beñat).

Elkarrizketatu gehienak bat etorri ziren beren gorputzarekin edo gorputzeko atalen batekin gatazkak izan zituztela adieraztean, beste hainbat ikerlanetako emaitzekin bat eginez, onartuz horrek JFKa egitea baldintzatu ziela (Elling-Machartzki, 2017). Hori, gainera, Jones eta kideek (2017) ondorioztatu moduan zuzenki lotuta dago beste pertsonak egiten dituzten irakurketa eta interpretazioek trans* pertsonengan eragiten dituzten beldur eta antsietate sentipenekin.

Besteak beste, argi geratu zen kirol-munduan gizon eta emakume kategoriak daudela ezarrita parte hartzeko garaian eta bertan ez kokatzeak ziurgabetasun eta antsietate handia sor diezaikeela kanon horiek betetzen ez dituzten pertsonak, eta haien parte-hartzean eragin (Hargie *et al.*, 2015).

3.1.2. Hormonazioa

Gorputzaren adierazpenek, ezaugarrien gorpuzteak eta gainerakoen interpretazioek sortzen dituzten gorabeherak estuki lotzen dira hormonazioarekin eta horren atzean egon litezkeen arrazoi eta ondorioekin. Izan ere, trans* guztiak ez dira hormonatzen edota ez dute beren gorpuztetan aldaketak egiteko beharra sentitzen edo ez puntu horretaraino iristekoa, behintzat, trans* normatibitateari ez jarraitzearen poderioz, identitate ez-bitarra, queerra, agertuz (Butler, 1990; Nicolazzo, 2016). Ikerlan honetako bost partaidetik hiru hormonazio fasean zeuden, baina beste bi ez. Dena den, horietako batek hormonazioaren aldeko hautua egina zuen, hasi gabe zegoen, ordea, eta zalantzak zituen hormonatzeak bere JFKaren ohitura eta testuinguruan izan zitzakeen ondorioen inguruan:

Gura dut beste hainbat gauza moldatzea zeren eta fisikoki ez naiz oso ondo ikusten. Nik hormonekin hasi gura dut. Gainera, hormonatzen arituta eta gizonezko baten ezaugarri fisikoak izanda ere, zure NAn emakumezkoa zarela mantentzen bada kategoria horretan joka zenezake (Ander).

Futbol-jokalaria zen, gainera, Ander, eta bere burua gizonezko trans* moduan agertu arren, irmo adierazi zuen nahiago zuela emakumeen taldean jokatzen jarraitzea, ordura arte egindako moduan, nahiz eta kontziente izan pauso hori emateak bere lehiatzeko aukeretan eragina izan zezakeela, bera gizon identifikatu arren emakumeen ligan aritu zelako ordura arte:

Niretzako, e, askotan lasaitu modukoa da, askotan pentsatu dut horretan, ea nik gura dudan jarraitu emakumezkoen kategorian edo gizonezkoen kategorian eta, azken finean, nik betidanik jokatu izan dut emakumezkoen kategorian (Ander).

Hormonazio-tratamenduak rol oso garrantzitsua izan dezake trans* pertsonen parte-hartzean (Jones *et al.*, 2018). Anderrek futboleko jarraitzeko oztopo bat bilaka zitekeen, ordea, nahiz eta gizonezkoa izan kategoria femeninoan jokatzen jarraitu nahi baitzuen, baina, era berean hormonazio-prozesua hasi nahi zuen, bere buruarekin hobeto sentitzeko. Hormonazio-prozesua hasteak, ordea, futbola uztera behartu zezakeen:

Pertsona batzuk zailtasunak dituzte eta izan dituzte euren kategorian jokatzeko, behin hormonekin hasita, jada fisikoki aldatu eta gizonezko eta emakumezkoen artean dagoen desberdintasun fisiologikoa jada orekatu denean, ba, behin aldaketa hori eginda kontatu didate aukeratu nahi izan duten pertsonak ezin izan dutela mantendu beren taldea, esaterako nik ezagutzen dut gizonezko trans* bat, saskibaloia egiten zuena eta bera behin hormonekin hasi zenean ezin izan zuen emakumezkoen talde horretan jarraitu (Ander).

Hormonatzeak kirol-sistema bitarreko kategorietan sailkatzeko baldintza ezar lezake (Jones *et al.*, 2016) eta horrek bestelako gogoeta eta bizipenak eragin zizkien transei*, beste galdera-ikur bat sortuz haien kirol-ibilbidean. Azaldu moduan, hormonazio-prozesua oztopo izan daiteke kirolen batean federatua dagoen norbaitentzat, Anderren kasuan bezalaxe, kategoria femeninoaren eta maskulinoaren arteko tartean geratzea eragin baitiezake (Jones *et al.*, 2017), eta lehiaketa-eremutik kanporatu.

Joxek, berriz, beste ikuspuntu bat azaldu zuen, hormonatu ala ez zalantzak izan zituela agertuz zenbait unetan eta oraindik hormonatzeko arrazoiren bat aurkituko lukeela, nahiz eta sakonagoak izan ez hormonatzeko arrazoiak:

Hormonatuta ez dagoen gizon trans* batek nerabezaroan dagoen mutil gaztetxo baten antza hartzen du ikuspuntu heteronormatibo batetik begiratuta. Niri gertatzen zait eta besteen begirada eta tratatzeko modu hori ekiditeko asmoz hormonatzea askotan desio izan dudan arren, ez nago prest nire gorputzean menopausia bat probokatu eta testosterona gehigarria hartzeak eragin ditzakeen ondorio negatiboen arriskuak hartzeko: hipertentsioa, obario edo umetokiko minbizia... (Joxe).

Ez hormonatzea JFKa egiteko onuragarri izan litekeela iradoki zuen Joxek, lehiaketa-esparru ofizialetik kanpo betiere, esaterako aisialdiko emakumezkoen ligan parte hartzeko arazorik ez izatea. Gainera, eta Butlerren (1990) ikuspegiari jarraikiz, genero-anbigutasun horrek pertsona ezberdinek ezberdin irakurtzea eragin dezake, batzuetan gizonezko moduan hitz egiten baitzioten. Joxek gustuko zuen hala irakurria izatea, baina esan beharra dago, entrenamenduen ondoren etxera joaten zela aldagelak erabili gabe, azalpenak emateko gogorik ez zuelako:

Hormonatuta ez nagoenez errazagoa eta erosoagoa egiten zait padeleko ligan emakumeekin lehiatzea, aldageletara eta dutxara ere joaten naiz. Entrenatzen dudanean, berriz, duela gutxi elkarte berri batean hasi naiz, entrenatzaileak maskulinoan hitz egiten dit horrela irakurri nauelako baina dutxatzen etxera joaten naiz, oraingoz azalpenik eman nahi izan ez dudalako. Askoz ere gusturago sentitzen naiz maskulinoan hitz egiten didatenean (Joxe).

Elkarrizketatuetako beste baten kasuan, ordea, oztopo baino lagungarri izan zuen hormonazio-prozesua berriro ere JFKra hurbiltzeko. Hormonazio-prozesuari eta horrek dakartzan gorputz-itxuraren aldaketei esker depresio- eta antsietate-mailaren hobekuntzari esker JFKan parte hartzea areagotu bailiteke (Jones *et al.*, 2018) Egoitzek adierazi bezala:

Hormonatzen hasi nintzenean eta publikoki esan nuenean guztiz aldatu nintzen eta orduan nire kirola egiteko gogoia aldatu zin eta gainera hormonekin ba energia gehiago dut eta horregatik bueltatu nintzen kirola egitera (Egoitz).

Dena den, goiko aipuak baditu ertz batzuk, kasu honetan ez baitzen kirol-lehiaketan ziharduena pertsona bat, bere kabuz eta sistema —ez hain— zurrunetik kanpo jarduera fisikoa egiteaz ari baitzen. Horrez gain, aldi berean bere genero-identitatea publiko egiteak ere izan zezakeen eragin positibo horretan zerikusirik. Haatik, hormonak hartzeaz gain beste alderdi batzuk ere kontuan hartu beharko lirake, goiko baieztapena interpretatzean. Elkarrizketatuen hitzak aintzat hartuz, hormonazio-prozesuak, norbere gorputzarekiko ikuspegia eta besteen begiradak mahaigaineratzearekin batera, trans* pertsonen parte-hartzea erdiz erdi baldintza lezake.

Oztopoa zen batzuentzat, bai beren generoko kategorian lehiatu nahi zutenentzat eta baita segurtasunagatik betidanik jokatu zuten kategorian mantendu nahi zutenentzat ere (Jones *et al.*, 2019). Kirol-sistemaren egitura zurrunaren poderioz (Travers, 2006), hormonazio-prozesua hasteak betiko kategorian uztera behartu

litzake trans* pertsonak, askok beren genero-identitatearekin bat datorren mailan jokatu nahi ez arren. Aldi berean, ordea, faktore motibatzaile aipagarrienetarikoa da, eragiten dituen aldaketak kirol-espazio publikoak erabiltzeko motibagarri izan litezkeelako eta, bestalde, hormonazioak dituen albo-kalteak orekatzeko JFKa gomendagarria delako (Lopez-Cañada *et al.*, 2021). Horrela, hormonazio-prozesuak trans* normatibitatearekin eta, era berean, JFKaren egitura hertsiarekin harreman handia duela suspertu zen elkarrizketetan. Butlerri (1990, 1993) jarraikiz, agian, interesgarria litzateke genero-kategorien performatibitatea ere mahai gainean jartzea JFKaren esparruan.

3.2. Besteen begirada, nola ikusten naute? Dimentsio interpertsonala

Beste pertsonekin harremanak izan eta horiek izan dezaketen eragina alde biko txanpona da trans* pertsonentzat JFKaren eremuan elkarrizketetan nabarmendu bezala. Jarraian suspertutako bi kategoriei erreparatuko diegu

3.2.1. Familia eta lagunak

Familia eta lagunak efektu positiboak zein negatiboak izan ditzakete trans* pertsonen JFKan duten parte-hartzean (Devís-Devís *et al.*, 2015). Fredricks eta Ecclesek (2015) adierazi zuten seme-alaben bizitza aktiboa bultzatzeko gurasoak zirela agente sozializatzaile aipagarrienak. Hala izan zen elkarrizketatutako pertsonetan. Bost elkarrizketatuek soilik faktore lagungarri bezala aipatu zuten familiakideen eragina, euren bizi-aztura osasungarriak eta JFKrako atxikimenduan lagungarri izan zitzaizkiela adieraziz. Ildo horretan, ikerlanen arabera familia eta hurbileko kideen babesa funtsezko alderdia izan daiteke JFKaren esparruan kolektiboaren inklusioa sustatzeko (Devís-Devís *et al.*, 2015; López-Cañada *et al.*, 2021). Ikerlan honetan familia eta lagunak harrera, oro har, ona izan zen, baita hurbileko kideen babes soziala ere. Nolanahi ere, prozesu honetan egoera gazi-goza sortzen direla adierazi zuen Joxek:

Lehenengo aldiz arrebari kontatu nionean berehala esan zidan gurasoei kontatzen lagunduko zidala. Amari kontatzean negar batean hasi zen izugarriko disgustua hartuta... niretzako oso mingarria izan zen ama horrela ikustea. Ondoren, astebete pasa baino lehen trans* baten kontaktua lortu eta eman zidan, berak ahal zuen guztia egingo zuela niri laguntzeko eta beti egongo dela nirekin esanez. Hala ere, 7 urte pasa diren arren, oraindik tarteka guraso zein familiakideek gurasoek jarritako izenez deitzen didate gehienetan eta mintzen nauten hainbat jarrera ere izaten dituzte. Ba, adibidez, maskulinoan ez hitz egitea, «guapa» hitza behin eta berriz errepikatzea, galtzontzilo itxura duten kulero batzuk oparitzea, arropa erosterakoan saltzaileari bere alaba naizela baina mutilen arropak janztea gustatzen zaidala azaltzea, etab. (Joxe).

Hala eta guztiz ere, ikerlan honetako trans* pertsonen hurbilekoen babesaren garrantzia eta eragina indartu arren kasurik gehienetan, agian, sakonago aztertu beharko litzateke ea hurbilekoen babesik ez duten edo sozialki haien egunerokoan hain babestuta eta lagunduta ez dauden pertsonen esperientziak ildo berean doazen, esanguratsua baita babes-sarea JFKaren esparruan txertatzeko, baita gizarte-sistema orokorrean ere (Lopez-Cañada *et al.*, 2021).

3.2.2. Bestelako kirol-eragileak

Klubek, teknikariek, JFK-ko profesionalek eta kirol-instalazioetan lan egiten duten pertsonen ardura handia dute kirol-instalazio edo -jardueretan trans* pertsonen inklusioa sustatzeko (Jones *et al.*, 2017). Transak* ondo sentiarazteko testuinguruko eragileen artean sentsibilizazioa eta enpatia sustatu behar dira (López-Cañada *et al.*, 2021). Zenbaitetan, ordea, bazterketa eta zailtasunak azaleratu ziren hain gertuko ez zituzten JFKaren esparruko pertsonen jokabideetan. Hala izan zen Beñaten kasuan, adibidez, arrauneko entrenatzailearen jarrerak bere jokaera edo lehiatzeko nahia oztopatu zuela adieraztean. Beste zenbait antzeko kasu ere aipagai izan zituzten:

Ez, ez, nik ez nuen lehiatu. Entrenatzera soilik joaten nintzen, nire entrenatzaileari ez zion grazia handiegirik egiten nik lehiatzeak, transa* nintzelako eta hormonatzen ari nintzelako eta abar... (Beñat).

Nik ezagutzen dut mutil bat bere taldetik bota zutena trans* izateagatik eta esan zioten jada ezin zuela hor jokatu (Egoitz).

Anderrek ere egoera oso deseroso bat kontatu zuen, oso presente zuena, Hargie eta kideek (2015) aipatu zuten JFKaren arloko profesionalen formakuntza faltaren ildotik. Azterketa mediko bat egiten ari zela, Anderrek bere genero-identitatearen inguruan azalpenak ematera behartu zuen bere burua profesional haren ezjakintasun eta sentsibilizazio faltagatik, deseroso sentituz.

Elkarrizketatuen ahotsean adierazi zen moduan, sarri ez da erraza JFKaren munduan onarpena eta estigmatizaziorik eza lortzea, bereziki, hain gertuko ez diren pertsonen dagokienean. Izan ere, bereziki kirol-sistema bitar eta androzentrikoan urteak daramatzate eta bertako inertziei jarraitzeko joera nabaria izan liteke, horren eraginez.

3.3. Testuinguruan, alerta-egoera: espazio ez-segurua, arriskua nonahi

Trans* pertsonen espazioekin eta bertan aurki ditzaketen egoerekin loturik esperientzia desatsegin eta ziurgabe asko izan zituzten hizpide. Elkarrizketatu denek, gainera. Bereziki, aldagela, dutxa eta komunak dira espazio gatatzakatsuenak eta izebergaren punta (Jones *et al.*, 2017; Lopez-Cañada *et al.*, 2021), baina ez da dena leku itxietara mugatzen.

3.3.1. Aldageletan, beldurrak airean

Trans* pertsona gehienentzat espazio beldurgarri eta ez-segurua dira aldagelak (Elling-Machartzki, 2017). Azken finean, aldagela eta dutxen kasuan, kirolak duen antolaketa bitar hegemoniko eta normatiboari jarraitzen diote, aldagela bakoitzari, genero bakoitzari, ezaugarri batzuk esleitzen, genero-estereotipoak, eta hortik kanpo dauden pertsona guztientzat espazio ez-seguru bilakatuz (Jones *et al.*, 2017). Ildo horretan, elkarrizketatuek beldurra, deserosotasunak eta segurtasun falta sarri aipatu zituzten, Anderrek azaldu moduan:

Nik pentsatzen dudana ba hori... ni eroso, beno, ni naizen moduan suposatzen da sartu beharko nintzatekeela gizonezkoen aldagela batean, baina beldur naiz eraso eta halako gauzak topatzeko. Beldurra da emakumezkoenetik gizonezkoenera igarotzerakoan, aldagelaz aldatzeko orduan (Ander).

Elkarrizketatuen artean kiroldegiko aldagelak sekula ere erabili ez zituen pertsona bat zegoen, etxera joatea hautatu zuen eremu horrek sortzen zion beldurraren erakusle:

Ni gimnasia joaten naiz beste edozeinen moduan, ezta? Baina ez naiz han dutzatzen, adibidez. Ulertzen? Probaleku edo dutxetara ez naiz sartzen kontu horrengatik. Noski joaten naizela gimnasia eta halakoak egiten ditut, baina han dutzatzea ekiditen baduzu hobeto. Ni nire etxean dutzatzen naiz (Jone).

Dutxatzera etxera joateko hautua egin zuten parte-hartzaileen artean bortizkeria sinbolikoa (Bourdieu, 2012) eta gizarteak eragindako beldurra agertu ziren emaitzetan. Beldur hori ez zaie soilik pertsona horien berezko ezaugarriei lotzen, baizik eta segurua eta ez-segurua zer den ezarri eta indartzen duen gizarte-egitura eta -ereduaren ondorio zuzenak dira. JFKaren arloan, aldagelak espazio ez-ziurrak dira, genero-identitate ez-normatiboak gorpuztearen eraginez (Butler, 1990).

Parte-hartzaileen hitzetan islatu zen moduan, hainbat kasutan estresa eta antsietatea sorrarazten zien beste pertsonak beren genero-adierazpenarekin bat ez zetozen ezaugarri fisikoak ikusteak (Jones *et al.*, 2017). Zenbaitetan, ezaugarri fisikoak aldagelaren generoaren ezaugarri fisikoekin bat datoz, baina genero-adierazpena edo identitatea ez, eta beste batzuetan, genero-adierazpena edo identitatea aldagelaren generoarekin bat dator baina, aldiz, ezaugarri fisikoak ez. Horrengatik, trans* pertsonak ez dira eroso sentitzen azpiegitura bitar hauetan, fokupean edo ez-lekuan sentitzeaz gain, beti besteen ebaluazioaren menpe baitaude (Perez-Samaniego *et al.*, 2019).

Gainerakoek eurekin batera aldageletan topo egitean izandako esperientziak partekatzean, adibidez, elkarrizketatuek behin eta berriz jendearen nahasmendua izan zuten ahotan. Horietako batzuk azalpenak ematera behartu zituztela azalduz, jarraian irakur daitekeen moduan Joxeren esanetan: «Kiroldegi batzuetara joaten naizenean, aldagela batzuetan sartzen naizenean, esaten didatenean, “e, barkatu, zu nahastu egin zara”, “Ba barkatu, ba igual zu gehiago nahastu zara!”. Ez?». Aipu horretakoak, gainera, bitartasunean kokatzen ez den eta trans* normatibitateari iskin egindako pertsona baten hitzak dira, hortaz, zentzu horretan ere diskrimina dezakete (Nicolazzo, 2016), haren gorputz-itxura ez datorrelako bat gizarteko kategorizazioarekin, genero-performatibitatearen adibide argi bihurtuz (Butler, 1993).

Espazio hauetan sentituriko segurtasunik ezak lotura zuzena du gainerako pertsonen begiradarekin, eta bakarren batek eraso egiteko beldurra sentitzeraino hel daiteke, espazio horietan ezarrita dagoen banaketa bitarrarekin bat ez egite soilagatik (Sartore-Baldwin, 2012). Horrengatik, errealitate konplexu baten aurrean aurkitzen dira aldagela hautatzeko orduan, bortizkeria sinboliko horrek (Bourdieu, 2012) haien segurtasuna lehenestera bidera ditzake, elkarrizketatuen arabera:

Batez ere aldagelen kasuan konplikatua da zein aldagelatan sartu erabakitzea trans* pertsonentzat, bakar bat ere ez baita leku segurua, beti egon daitezke begiradak, epaiak, etab. Gogoratzen naiz behin aldagela batean, ni oraindik ez nintzen hormonatzen ari, nesken aldagelara sartu nintzen eta gero ama-alaba batzuk sartu ziren eta sartzean esan zuen «ai, nahastu egin naiz!» eta kanpora irten ziren, letreroa irakurri zuten eta esan zidan hura ez zela mutilen aldagela, nahastu egin nintzela... eta esan nion, «begira, bularrak dauzkatz!» (Beñat).

Nik ez dut uste leku seguruak direnik, azkenean jendeak esan dezakeenaren menpe zaude, azkenean bakoitza bere gauzetara dago, baina beno, ez zara erabat aske sentitzen (Beñat).

Anderren kasuan, hormonatu gabea izaki, emakumezkoen aldagelak, komunak eta dutxak erabiltzen zituen, jaiotzean esleituriko sexuarekin bat zetozen aldagelak, bere identitatea alde batera utziz eta ezaugarri anatomikoen baitan erabilera moldatuz, segurtasun arrazoiengatik.

«Aizu, ez, hau nesken aldagela da!». Agian kontraesana da, baina, alde batetik ijuu! Zeren eta naizen bezalako identifikatu naute, mutila, baina bestalde, da pfff, gura dut sartzea [aldageletara] honengatik, ez daukat zuri azalpenik eman beharrik. Askotan, buelta ematen dut eta «ah bale! Emakumea zara...» eta orduan ba, aixxxx. Baina beno, da kontraesana, dira ba esaldi hauek, mingarriak direnak, pixkat, baina beno hori, nik kontuan hartzen dut nahi gabe egiten dituztela (Ander).

Egoitzen kasuan, Hargie eta kideek (2015) aurkeztutako errealitatearekin bat etorritik, gimnasioan ez zituen emakumezkoen ezta gizonezkoen aldagelak erabiltzen, erasoia izateko beldurragatik:

Sartzen hasi nintzen aniztasun funtzionala duten pertsonen aldageletan bai, sartu nintzen hor zeren beldurra nuen, azkenean zen ba ez nintzen ondo sentitzen emakumeen aldageletan zeren ez zuen inongo zentzurik ni hor egotea baina baita ez dakit beldurra nuen gizonen aldageletan sartzea, horregatik beti sartzen naiz hor (Egoitz).

Beñat, aldiz, nahiz eta espazio ez-segurua bezala ikusi, gimnasioan gizonezkoen aldagela eta dutxak erabiltzen zituen arren, jende gutxi egon zitekeen orduetan joaten saiatzen zen. Jones eta kideekin (2017) bat etorritik, aldagela eta dutxetan dagoen pribatutasun faltagatik, momentu oro, aldagela horren generoarekin bat ez zetozen genitalak ezkututzen saiatu eta estrategia ezberdinak erabiltzen zituen bere burua babesteko:

Jende asko ez dagoenean joateko aprobetxatzen dut eta sartzean dutxan jendea dagoela ikusten badut beste zerbait egiten ari naizela antzetzten dut dutxan ez sartzeko zeren dutxa denak elkarrekin dira. Orduan, mugikorriari begira ari naizela egiten dut edo gauzak ordenatzen eta husten denean sartzen naiz. Gainera, noski, hormari begira jartzen naiz ez dezaten daukadana ikusi eta amaitzean zuzenean toalla jartzen dut gerritik behera, sartzean bezala (Beñat).

Aldageletako pertsonen erreakzioak, gainera, ezberdinak zirela aipatu zuten, baita patroia batzuk errepikatzen zirela ere. Esaterako, bakarrik edo beste norbaitekin egoteak denengan eragin ezberdina zuela adierazi zuten:

Kiroldegi batean aldagela batean baldin banago, bakarrik baldin banago, eta norbait sartzen baldin bada, bua, beldurtuta kanpora doa. Klaro, ze ni nesken aldageletan sartzen naiz! Beldurtuta kanpora doa. Klaro, ez nago ez operatuta ez ezer, baina! Em... jendea baldin badago eta ni sartzen baldin banaiz, begira geldituko dira (Joxe).

Aldageletan pertsona bat baino gehiago egonez gero, ordea, sarritan isiltasuna gailentzen zela adierazi zuen Joxek, begirada etiketatzailerekin batera, ezjakinean zalantza egin eta isilik geratuz beste denak ere egoera berean izaki:

Igual horrela baten batek, aurpegia daukanak edo, zeozer esango dit, baina normalean ezer ere ez. Zergatik? Bat baino gehiago daudelako, eta, ja... bakarrak igual duda egingo du eta esan egiten du, gehiago daudenean, gehiagok duda egiten dute eta nola bestea ere dudana dagoen, eta ez duen ezer ere esaten isildu egiten dira. Asi de klaro eh? Eta horrekin ikerketa bat egitea daukat (Joxe).

Ikerlan baterako adina emango zukeela baieztatu zuen Joxek aldageletako auziak, egoera bera behin eta berriz errepikatzen zela adierazi baitzuen, berak beldurra nola kudeatzen zuen kontatzearekin batera, lehen zeuzkan oztopo horietako batzuk gainditzeko bidea hartu zuela adieraziz, gizartean normalizat jotzen diren ekintzak egiten zituela baieztatuz lagun bati:

(Ikerketa baterako emango zukeen galdetuta) Benooooo, bai, bai, bai. Buf... ea zenbat jende dagoen, ea...! Bai, eta orduan, hori bada nire beldurretako bat, eta orain puskatzen ari naizen barrera bat ezta? Aurrekoan lagun batekin hitz egiten, «joe zer moduz?, joe aspaldi egon gabe eta...», «jo ba bai, jende normalak egiten dituen gauzak ari naiz egiten. Ba kiroldegira joan, lanera joan...» Pixka bat normalizatzen zara, pixka bat ingurura egin, ni ere bai, jo, eta kiroldegira beti joaten baldin bazara ordu berdintsutan edo, ni niregan ari naiz barrera batzuk puskatzen.

Aurrerapausoak nabari arren bere baitan, aldagelek espazio ez-segurua izaten jarraitzen zutela adierazi zuen indarrez dena den Joxek ere, bere beldurrik handiena aurrera egindako urratsak berriro ere atzera egitea zela azpimarratuz, berriz ere nor den azaldu beharra, aldageletan gertatutako zerbaitengatik bertatik botako zuten beldurra azaleratzeraino:

Ze kristorena, ze beldurra ematen didana kristorena ba pixka bat komentario horietan osea aldageletatik botatzea da... buf... berriiiiiiiiiiro azalpenak eman behar, berriiiiiiiiiiro esan behar, ezta? Eta batez ere bakarrik joaten banaiz (Joxe).

Egoera hauen aurrean esku hartzeko estrategiak proposatzea oinarrizkoa da JFKaren espazioetan segurtasuna sustatu eta aukera-berdintasuna bermatzeko erabiltzaile guztiei (Cunningham eta Hussain, 2020). Horren inguruan hausnartzean, elkarrizketatu batzuk aldagela mistoen aldekoak ziren, horien barruan banakako espazioak erakiz (Hargie *et al.*, 2015). Eraldaketa behar zutela nabarmendu zuten, antolaketa bitarrarekin amaitzeko (Jones *et al.*, 2017):

Instalazioak aldatu egin behar dira... Kolektiboarentzako ba esan dudana, sortu behar dira ba, aldagela mistoak, Frantzia hainbat lekutan badaude, dutxak ere kabinekin bereizita daudela, dutxak bereizita eta hor soilik pertsona bat sartzen da. Zer zailtasun daude horrelako aldagelak eratzeko? Dirua? (Ander).

Beñatek, aldiz, aldagela komun en aldekoa izan arren, gizartea oraindik ez dagoela prest adierazi zuen, eta gehiegikeriak eta horien eraginez gerta zitezkeen tolerantzia gabeziaren arazoa aipatu zuen, Hargie eta kideekin (2015) bat eginez:

Onea izango litzateke, baina aldagela hauen barruan kabinak jarrita. Jende askok dio desastre bat izango litzatekeela, gizonek asko zikintzen dutela diote eta bortxaketen kontu guztia eta... ez dakit, nik uste dut gizartea oraindik ez dagoela prestatuta aldagela komunak izateko. Jendeak errespetua duen egunean eta tolerantzia duenean, orduan bai, baina oraintxe bertan... (Beñat).

3.3.2. Bestelako espazioetan ere segurtasunik ez

Aldagela, komun eta dutzez gain, kalea eta eremu publikoa bera ere espazio ez-seguru bilaka daitezke (Hargie *et al.*, 2015). Badira oinezko ibilbideak parean topo egin dezaketen pertsonen arabera antolatzen dituzten trans* pertsonak, adibidez (Hargie *et al.*, 2015). Dena den, elkarrizketatuetako batek, Beñatek, aurkako pertzepzioa zuen edo hain arriskutsuak ez zirela adierazi zuen, behintzat: «Lehen esan dudan moduan, agian lekurik itxienak nik ez ditut seguru bezala ikusten, baina, kalea, adibidez, oharkabeagoan ibiltzean, izan daiteke seguruagoa».

Egoitzek ez zuen egin bereizketarik trans* pertsonak bestelako pertsonekin erlacionatzerakoan, jada eremu ez-seguru batean aurki daitezkeelako, generoa gorpuzteko askatasuna mugatuta gera daitekeelako, kolektiboak bizi duen bazterketa sozialagatik (Hargie *et al.*, 2015). Aldiz, aipatu zuen, lehenago kalean korrika egitera irtetean bularrak nabaritzeak kezkatzen zuela, aldageletan bezainbesteko arriskua sentituz: «Arrisku berdina daukazu ateratzen bazara paseo bat ematera, ez dut zertan erlazioa ikusten» (Egoitz).

Anderrek segurtasuna kirol-lehiaketa egituratuan norekin aritu aintzat hartzearekin ere lotu zuen. Emakumeen kategorian jokatzeko zuten gizonezko moduan, gizonezko kategorian ez zuten berarentzat espazio seguru moduan ikusten, horregatik emakumezkoekin futboleko jokatzeko jarraitu nahi zuen. Caudwellek (2014) aurkeztutakoarekin bat etorriz, gizonezko trans* batzuek ez dute gizonezko kategorian jokatu nahi, kirol-maskulinitateak beldurgarriak eta arriskutsuak direlako haientzat. Gainera, Jones eta kideek (2017) ondorioztatu bezala, gorpuztamaina, indarra eta jokatzeko eragatik trans* gizonezko batentzat arriskutsua izan daiteke:

Nik betidanik jokatu izan dut emakumezkoen kategorian batean, nire gaitasunak emakumezko kategorian batekoak dira batez ere, orduan gizonezkoetan ikusi izan dut zer nolako gaitasunak dituzten edo nola jokatzeko duten eta ez dut gustuko, ez dut nire burua hor ikusten (Ander).

Anderrek, ordea, kategorian-aldaketa hormonazio-prozesuarekin ere lotu zuen, kasu horretan, agian, segurtasunik eza beste era batera bizi zezakeela adieraziz:

Nik aldaketa bat izaten badut, fisikoki, ba ahots grabeagoa daukadala, gainera, bizarra atera zaidala, ez daukadala bularrik... ba azken finean ezaugarri hauek baldin baditut, eta gizonezko baten antzerakoa edo gizonezko baten moduan irakurria banaiz, ba orduan bai erosotasuna emango lidake. Baina, orain momentu honetan, gizonezkoen talde batera pasatzea... ez litzateke izango segurua (Ander).

Beñaten kasuari dagokionez, berriz, arraunean ez lehiatzeko arrazoia haren genero-adierazpena publikoki gehiago ez adieraztea izan zitekeen. Askotan trans* pertsonak kirol lehiakorrek ekiditen dituzte, kasu askotan bitartasunaren estereotipoekin bat ez datozelako (Elling-Machartzki, 2017):

Ahalegin handia egiten ari nintzen han entrenatzeko, jendearen aurrean agertuz, eta egia esateko ez nuen federatzeko eta lehiatzeko gogorik, eta aldagelak jende gehiagorekin partekatzeko beharrik, ez nuen gogorik (Beñat).

Igerilekuei dagokienez, Elling-Machartzki (2017) ondorioztatu zuen espazio ez-segurua izaten direla trans* pertsonentzat, haien gorputz biluziak eta bustiak agerian geratzen direlako. Egoitzek berretsi zuen errealitate hori, asko gustatu arren, espazio horretara joateari utzi ziola baieztatuz: «Niri asko gustatzen zait igeri egitea eta igerilekura joatea, eta lau urte daramatzat joan gabe. Zeren eta justu publiko egin baino lehen utzi nion igeri egiteari, zeren beldurra nion eta nire bularrak ikusten ziren, eta halako arazoak».

Espazio ez-seguruetan aritu ordez horiek seguru bihurtzeko moduen inguruan hausnartzeko beharra ere plazaratu zuten elkarrizketatuek. Izan ere, espazio seguru bezala JFKaren esparruan transen* inklusioa sustatzeko, trans* edo LGBT+ kolektiboarentzat eskusiboak ziren taldeak eta ligak aipatu ziren. Kirol mistoa ere planteatu zen, gaitasun-mailaren arabera antolatuta, pertsona hauek erosoago eta gustura sentitu eta JFKa egiteari ez uzteko bitartekoak izan zitezkeela adieraziz:

Trans* pertsonen taldeak sortzea... ez dut egokia ikusten baina justuena izango litzateke gainerako pertsonentzat (Ander).

[Kirol mistoa] nire ustez oso ona izango litzateke jende askorentzat zeren gainera aurreiritzi asko aldatuko lirake. Lehen esan dudana, emakumeen ahultasun-pertzepzioa eta horrelakoak aldatuko lirake eta oso utopikoa da baina oso ideia ona nire ustez (Egoitz).

Gizonak eta emakumeak bereizita ere ez, ez dakit, kategoriak beste modu batean egin litezke, gaitasun- edo indar-mailaren arabera edo (Beñat).

Dena den, denak ez zetozen bat egoera horiek lagungarri izango zitzaizkien ala ez adieraztean. Adibidez, Beñatek talde berezitu bezala antolatzea desegokia iruditzen zaiola adierazi zuen eta horregatik aipatu zuen gaitasunena, agian, izan daitekeela irtenbide posibleetako bat. Egoitzek ere, ez zuen guztiz egoki jo:

Trans* talde bat egitea, ba, ez dakit, hori ideia ona iruditzen zait bultzatzeko, baina ez zait egokia iruditzen konkretuki trans pertsonena bakarrik... Esaten dizute, zeinen ondo, baina bereizten ari zara, bakarrik da jende guztia onartzea gehiago eta ez segregatzea trans* pertsonak. Gertatzen da berdina komunekin, esatea: nesken komuna, mutilen komuna eta transen komunak, ba, horrek ez du inongo zentzurik (Egoitz).

Ildo horretan, beste ikuspegi batetik, Joxek, trans* ligak antolatze kotan kolektiboko kideen arteko indarrak eta harremanak sustatzeko izan beharko lukeela nabarmendu zuen:

Trans* taldea egitearen ideia oso ona iruditzen zait baldin eta helburua sozializatzea, kezkak elkar banatzea, ondo pasatzea eta ahalduz bada. Horrek ez du esan nahi, trans* pertsonok ohiko talde ez-mistoetatik kanporatuak izan beharko genukeen hirugarren kategoria bat sortuz baizik eta kirolak ematen dituen onurak aprobetxatzea eta trans* kolektibo bezala indartzea, lehiari eta kompetitibitateari garrantzia kenduz (Joxe).

Ildo honekin amaitzeko, lesbianentzat bideratutako ligetan trans* inklusioa geratzeko oraindik ere ligak eta pertsonen ikuspegiak eraldatu behar direla ikusi zen, queer mugimendu baterantz bultzatuz (Travers, 2006). Hau da, LGBT+ kolektiboari bideratutako liga edo taldeetan trans* pertsonen bazterketa ere gertatu ohi dela nabarmendu zuen Traversen 2006an. Nolanahi ere, nabarmentzekoa da 2006tik hona LGTBI+ kirol-kluben gorakada gertatu dela eta joera-aldaketarik egon den aztertzea interesgarria litzakeela. Esaterako, LGTBI+ Kirol Elkargo Iberoamerikarra (ADI, Agrupacion Deportiva Iberoamericana LGTBI+) 2009an sortu zen, eta trans* pertsonen lehen JFK taldeen berri izaten ari garen honetan, interesgarria izan daiteke ildo honetako ikerketetan sakontzea etorkizunean.

4. Ondorioak

Ikerlan honetatik ateratako ondorio nagusietan azpimarratu da alderdi intrapertsonalean bereziki gorputz-itxurak, identitatea nola gorputzu eta nola adierazten den eta horrekiko asetze-mailak garrantzia handia duela, baldintzatzaile nabarmena dela trans* pertsonen JFKaren jardueretarako. Horrekin zuzenki lotzen da hormonazioak duen eta izan dezakeen eragina, gorputz-itxuran aldaketak eragitearen poderioz beste esparru guztietan ere hala eragiten dituelako. Horregatik, esperientzia eta arrazoi ezberdinak nabarmendu daitezke gure elkarrizketetan azaleratu den bezala, sistema bitarreen kokatzeak baldintzatuta zenbait kasutan. Domeinu interpertsonalari dagokionez, besteek trans* pertsonak ikusi eta epaitzeko duten joera handia da eta, bereziki, familiako kide eta lagunak babesak haien egunerokoan eta JFKaren ohituretan eragin zuzena duela nabarmendu da. Amaitzeko, testuinguruko faktoreen artean aldagelak izan ziren diskriminazio eta esperientziarik desatseginen espazio. Arriskua hitza suspertu da denen ahotan, nahiz eta bestelako espazioetan ere trans* pertsonak zailtasun eta oztopoak nabarmendu. Era berean, hiru domeinuak ikuspegi sozioekologikoari jarraituz banaka aurkeztu diren arren, lan honetan, elkarreraginean daudela nabarmendu da. Batak bestea baldintzatzen du, trans* pertsonen errealitatea ertz askoko erpina dela ondorioztatu da era honetara.

Ondorioetatik abiatuta, honako proposamenak egiten dira JFKaren praktikan trans* pertsonen errealitatea eraldatu eta hobetzen jarraitzeko:

- Herritar ororen genero-hezkuntza sustatu. Gizarteari beste gorputz mota batzuk daudela erakutsi, eredu heteropatriarkala zalantzan jarriko dutenak.
- Kirol-sistema auzitan ipini, berrasmatu. Lehiaketa-esparruko zein aisialdiko eskaintzan bitartasunetik haratagoko proposamenak diseinatu.

- Trans* pertonek beren baitan sentitzen dituzten gorputz-itxurak eragindako deserosotasunak ulertu eta horiek bideratzeko laguntza eskaini, baita hormonazio-prozesuetan ere, hala hautatzen badute.
- Aldagela eta JFKa egiten den espazio arriskutsu guztiak seguru bihurtu, beharrezko birmoldaketa eta egokitzapenak eginez.
- JFKa praktikatzeko espazio ziurrak sortu. Talde segregatu zein inklusiboak.
- Kirol-klub, kiroldegiko teknikari, monitore zein entrenatzaileen LGTBI+ sentsibilizazio zein formazio-programak sortu eta gauzatu.

Honenbestez, amaitzeko, etorkizunean interesgarria litzateke errealitate hauetan sakontzen jarraitzea, trans* pertonek esparru honetan dituzten gainerako oztopo eta aukerak ere plazaratu eta ikusgarritasuna ematea, pertsona denen eskubideak eta ongizatea sustatzeko. Ildo horretan, genero-sistema sakonean aztertu, bertan dauden desorekak identifikatu eta formazio egokia sustatzea funtsezkoak lirateke egoera deserosoei eta JFKaren eremuan dirauten oztopoei aurre egin eta edozein pertsonaren inklusioa sustatzeko (Cunningham eta Hussain, 2020).

5. Erreferentziak

- Bourdieu, P. (2012): «Violencia simbólica», *Revista Latina de Sociología*, 2(1), 1-4. doi: 10.17979/relaso.2012.2.1.1203
- Butler, J. (1990): *Gender trouble. Feminism and the subversion of identity*, Routledge, New York.
- , (1993): *Bodies that Matter: On the Discursive Limits of 'Sex'*, Routledge, Londres.
- Cabral, M. (2009): *Interdicciones: Escrituras de la intersexualidad en castellano*, Anarrés, Kordoba.
- Caudwell, J. (2014): «[Transgender] young men: Gendered subjectivities and the physically active body», *Sport, Education and Society*, 19(4), 398-414. doi: 10.1080/13573322.2012.672320
- Cunningham, G.B. eta Hussain, U. (2020): «The case for LGBT diversity and inclusion in sport business», *Sport and Entertainment Review*, 5(1). Online eskuragarri: <<https://serjournal.com/2020/01/15/the-case-for-lgbt-diversity-and-inclusion-in-sport-business/>>.
- D'Angelo, C. eta Tamburrini, C. (2013): «Las atletas intersexuales y la equidad de género: ¿Son sexistas las normas del COI?», *Archivos de Medicina del Deporte*, 30(2), 102-107.
- De Moor, M.H.M.; Beem, A.L.; Stubbe, J.H.; Boomsma, D.I. eta De Geus, E.J.C. (2006): «Regular exercise, anxiety, depression and personality: A population-based study», *Preventive Medicine*, 42(4), 273-279. doi: 10.1016/j.ypmed.2005.12.002
- Devís-Devís, J.; Beltrán-Carrillo, V.J. eta Peiró-Velert, C. (2015): «Exploring socio-ecological factors influencing active and inactive Spanish students in years 12 and 13», *Sport, Education and Society*, 20(3), 361-380. doi:10.1080/13573322.2012.754753
- Elling-Machartzki, A. (2017): «Extraordinary body-self narratives: Sport and physical activity in the lives of transgender people», *Leisure Studies*, 36(2), 256-268. doi: 10.1080/02614367.2015.1128474
- Ellis, S.J.; McNeil, J. eta Bailey, L. (2014): «Gender, stage of transition and situational avoidance: a UK study of trans people's experiences», *Sexual and Relationship Therapy*, 29(3), 351-364. doi: 10.1080/14681994.2014.902925

- Fausto-Sterling, A. (1993): «The Five Sexes: Why Male and Female Are Not Enough», *The Sciences*, 33, 20-24.
- Fine, M.; Torre, M.E.; Boudin, K.; Bowen, I.; Clark, J.; Hylton, D.; Martinez, M. «Missy»; Rivera, M.; Roberts, R.A.; Smart, P. eta Upegui, D. (2003): «Participatory action research: From within and beyond prison bars», in P. Camic, J.E. Rhodes & L. Yardley (ed.), *Qualitative research in psychology: expanding perspectives in methodology and design*, American Psychological Association, Washington, DC, 173-198.
- Fredricks, J.A. eta Eccles, J.S. (2005): «Family socialization, gender, and sport motivation and involvement», *Journal of Sport and Exercise Psychology*, 27(1), 3-31. doi: 10.1123/jsep.27.1.3
- Giles-Corti, B.; Timperio, A.; Bull, F. eta Pikora, T. (2005): «Understanding Physical Activity Environmental Correlates: Increased Specificity for Ecological Models», *Exercise and Sport Sciences Reviews*, 33(4), 175-181. doi: 10.1097/00003677-200510000-00005
- Granados, S.H.B. eta Cuéllar, Á.M.U. (2018): «Influencia del deporte y la actividad física en el estado de salud físico y mental: Una revisión bibliográfica», *Katharsis: Revista De Ciencias Sociales*, 25, 141-160. doi: 10.25057/25005731.1023
- Hargie, O.D.; Mitchell, D.H. eta Somerville, I.J. (2015): «People have a knack of making you feel excluded if they catch on to your difference: Transgender experiences of exclusion in sport», *International Review for the Sociology of Sport*, 52(2), 223-239. doi: 10.1177/1012690215583283
- Hargreaves, J. (2000): *Heroines of sport: the politics of difference and identity*, Routledge, Londres.
- Hargreaves, J. eta Anderson, E. (2014): *Routledge Handbook of Sport, Gender and Sexuality*, Routledge, Londres.
- Heggie, V. (2010): «Testing sex and gender in sports; reinventing, reimagining and reconstructing histories», *Endeavour*, 34(4), 157-163. doi: 10.1016/j.endeavour.2010.09.005
- Hercher, L. (2010): «Gender verification: A term whose time has come and gone», *Journal of Genetic Counselors*, 19(6), 551-553. doi: 10.1007/s10897-010-9323-z
- Joncheray, H.; Level, M. eta Richard, R. (2016): «Identity socialization and construction within the French national rugby union women's team», *International Review for the Sociology of Sport*, 51(2), 162-177. doi.org:10.1177/1012690213517108
- Jones B.A.; Haycraft E.; Bouman W.P. eta Arcelus, J. (2018): «The levels and predictors of physical activity engagement within the treatment-seeking transgender population: A matched control study», *Journal of Physical Activity and Health*, 15(2): 99-107. doi: 10.1123/jpah.2017-0298
- Jones, B.A.; Acerlus, J.; Bouman, W.P. eta Haycraft, E. (2016): «Sport and transgender people: a systematic review of the literature relating to sport participation and competitive sport policies», *Sports Medicine*, 47(4), 701-716. doi: 10.1007/s40279-016-0621-y
- Jones, B.A.; Haycraft, E.; Bouman, W.P. eta Arcelus, J. (2017): «Barriers and facilitators of physical activity and sport participation among young transgender adults who are medically transitioning», *International Journal of Transgenderism*, 18(2): 227-238. doi: 10.1080/15532739.2017.1293581
- López-Cañada, E.; Devís-Devís, J.; Pereira-García, S. eta Pérez-Samaniego, V. (2021): «Socio-ecological analysis of trans people's participation in physical activity and sport», *International Review for the Sociology of Sport*, 56(1), 62-80. doi: 10.1177/1012690219887174
- Mizock L. eta Mueser K.T. (2014): «Employment, mental health, internalized stigma, and coping with transphobia among transgender individuals», *Psychol Sex Orientat Gen Divers*, 1(2), 146-58. doi: 10.1037/sgd0000029

- Nicolazzo, Z. (2016): «'It's a hard line to walk': black non-binary trans*collegians' perspectives on passing, realness, and trans*-normativity», *International Journal of Qualitative Studies in Education*, 29(9), 1173-1188. doi: 10.1080/09518398.2016.1201612
- Pérez-Samaniego, V.; Fuentes-Miguel, J.; Pereira-García, S.; López-Cañada, E. eta Devís-Devís, J. (2019): «Experiences of trans persons in physical activity and sport: A qualitative meta-synthesis», *Sport Management Review*, 22(4), 439-451. doi: 10.1016/j.smr.2018.08.002
- Ruiz-Olabuenaga, J.I. (2012): *Metodología de la investigación cualitativa*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Safren, S.A. eta Heimberg, R.G. (1999): «Depression, hopelessness, suicidality, and related factors in sexual minority and heterosexual adolescents», *Journal of Consulting & Clinical Psychology*, 67, 859-866.
- Sallis, J.F.; Certero, R.B.; Ascher, W.; Henderson K.A.; Kraft, M.K. eta Kerr, J. (2006): «An ecological approach to creating active living communities», *Annual Review of Public Health*, 27, 297-322. doi: 10.1146/annurev.publhealth.27.021405.102100
- Sallis, J.F. eta Owen, N. (2015): «Ecological models of health behaviors», in G. Karen, B.K. Rimer eta K. Viswanath (ed.), *Health Behavior, Theory, Research and Practice*, Jossey-Bass, San Frantzisko, CA, 43-64.
- Sartore-Baldwin, M. (2012): «Lesbian, Gay, Bisexual, and Transgender Athletes in Sport», *Journal for the Study of Sports and Athletes in Education*, 6(1), 141-152. doi: 10.1179/ssa.2012.6.1.141
- Semerjian, T.Z. eta Cohen, J.H. (2006): «"FTM Means Female to Me": Transgender Athletes Performing Gender», *Women in Sport and Physical Activity Journal*, 15(2), 28-43. doi: 10.1123/wspaj.15.2.28
- Sparkes, A.C. & Smith, B. (2014): *Qualitative research methods in sport, exercise and health: From process to product*, Routledge, Cambridge.
- Travers, A. (2006): «Queering sport: Lesbian softball leagues and the transgender challenge», *International Review for the Sociology of Sport*, 41(3-4), 431-466. doi: 10.1177/1012690207078070
- Tredway, K. (2018): «Judith Butler, Feminism, and the Sociology of Sport», in L. Mansfield, J. Caudwell, B. Wheaton eta B. Watson (ed.), *The Palgrave Handbook of Feminism and Sport, Leisure and Physical Education*, Palgrave Macmillan Uk, 409-425.
- Witcomb, G.L.; Bouman, W.P.; Brewin, N.; Richards, C.; Fernandez-Aranda, F. eta Arcelus, J. (2015): «Body Image Dissatisfaction and Eating-Related Psychopathology in Trans Individuals: A Matched Control Study», *European Eating Disorders Review*, 23(4), 287-293. doi: 10.1002/erv.2362

